

Udal informazio aldizkaria | Revista de información municipal

www.busturia.ehbildu.eus  EHBildubusturia  busturia@ehbildu.eus



Iaz hasi ziren San Kristobaleko biribilgunea edo errotonda berria egiteko lanak. Horrek ekarri du San Kristobal auzoko birmoldaketa, errepiide bazterreko eremuan, eta Aldundiaren araudira egokitzeko, lehen egon diren aparkaleku desagertu behar zuten, eta haien ordez Presape inguruan egin behar zituen Udalak aparkaleku berriak.

Edonork pentsatuko luke Presapeko aparkaleku berriak egin behar zirela lehengoak desagertu orduko, baina antza Busturiko Udal Gobernuak ez du logika berberaz funtzionatzen, eta Presapeko eremuan lurra leundi eta egokitutu duenerako (astebeteko lanak gutxi gora behera) pare bat hilabetez egon gara kalean ezin aparkatu eta ordezko lekurik gabe.

Eta lehen egon diren aparkaleku en ordez, zer egin du Aldundiak? errazena eta merkeena: zementua bota eta baldosak ipini, besterik ez. Eta zer egin du Busturiko Alkateak? Ba ematen du ez duela egin ezer, men egin diola Aldundiaren asmoari txintik esan gabe.

Auzoan egiten ari dena ikusita, **ematen duen sentsazioa da ez dagoela**

inor agintzen udaletxean, ez duela inork ardurarik hartu Aldundiarekin jezartzeko eta proiektu bat adosteko. Pentsaezina dirudi alkate batek holako utzikeria erakustea. Ezin izan dira biribilguneko lanak aprobetxatu behar den moduan urbanizatzeko? Alkateari ez al zaio burutik pasatu ere zementuzko espaloien ordez beste urbanizazio mota batzuk ere badaudela? Edo gutxienez, ezin izan dio Aldundiari eskatu espaloiz zaharrak kentzeko eta denak berdinak ipintzeko? Eta batez ere: **ez al zaio Alkateari burutik pasatu ere egin au-zotarrekin berba egitea?**

Eta Alkatea diogu, bera delako Udalburua, eta soldata kobratzen duelako jardunaldi osoan Udalean lan egiteko. Baina ematen du Alkatea bera desagertuta dagoela, ez dagoela inor udaletxean agintzen, bestela ez da ulertzten horrelakorik.

Aukera ederra galdu da San Kristobalen beste modu batera urbanizatzeko, eta agerian geratu da, berriro ere, Altamira auzoko urbanizazio lanekin gertatu zen bezalaxe, Alkatearen eta EAJ-ren Udal Gobernuaren ezintasuna eta utzikeria, eta herritarrak entzuteko borondate falta.

OBRAS EN SAN KRISTOBAL

Otra muestra de la dejadez del alcalde del PNV

Las obras de la rotonda de San Kristobal han traído la remodelación del barrio en la zona contigua a la carretera. Para cumplir la normativa foral, había que quitar los aparcamientos y el Ayuntamiento de Busturia habilitaría unos nuevos en Presape. **Lo lógico sería hacer los aparcamientos nuevos antes de que desaparecieran los anteriores, pero el gobierno municipal no funciona con la misma lógica**, y para cuando se ha acondicionado el terreno de Presape (más o menos una semana de obras) ya llevábamos meses sin poder aparcar en la calle.

Y donde antes estaban los aparcamiento, ¿qué ha hecho Diputación? Lo más fácil y barato: echar cemento y poner baldosas. ¿No se podían haber aprovechado las obras para urbanizar bien? ¿Al alcalde no se le ha pasado por la cabeza que hay otras formas de urbanizar aparte de poner aceras? O por lo menos ¿no podía pedirle a Diputación que quitara las aceras antiguas y pusiera todas nuevas? Y sobre todo: **¿no se le ha pasado al alcalde por la cabeza hablar con los y las vecinas del barrio?** Y decimos el alcalde porque él es el presidente de la corporación, y porque cobra un sueldo por trabajar en el Ayuntamiento a jornada completa. Pero **da la sensación de que está desaparecido**.

Se ha perdido una oportunidad para urbanizar San Kristobal de otra manera y como ya pasó con la urbanización de Altamira, ha quedado de manifiesto la dejadez e incapacidad del gobierno del PNV y su falta de voluntad de escuchar al vecindario.

Saneamenduaren bonbeoaren ajeak

2010eko urrian Busturiko Udalak, ANV eta EA alderdiek osatuta, **ur fekalen bonbeo estazioaren kokapenaren aurka** jarri zen, herritarren kezkei babetesa emateko. **Garai horretan, zaratak, usainak eta isurien arriskua aipatzentzen ziren**, eta Muruetako Ontziolako ondoko lurretan planta eraikitzea alternatiba gisa defendatuz, eta ez etxebizitzenten ondoan dagoen arlo urbano baten.

Salaketa prozesu horretan herreraren mobilizazio oso indartsua egon zen, baita 500 euroko isunak jaso ere, errepidean informazioa banatzeko trafiko eteteagatik. Garaiko udal gobernuak eta auzokideek zituzten kezkiak betetzen ari dira, zoritzarrengatik.

Lehen bonbeo eraikina ipini egin izan zen lekuak, Muruetan, gaur Guggenheim museo proiektu erraldoia sartu nahi dute, arazo barik. Alderdi bakoitzak zein interes defendatzen duen argi ikusten da.

Egungo egoera

2022ko otsailean, San Kristobaleko auzokideek, idatzi baten bitartez, Busturiko Udalari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, auzo horretan, **ponpaketa estazioak sortzen dituen zaratak eta usain txarren berri eman zien**. Idatzia horretan, auzokideen ondoezaren berri eman zen eta hartu beharreko neurriei buruzko informazioa eskatu.

Gogorarazi behar da 2022ko maiatzean jada sinadura bilketa bat egin zela, baina udalean aurkeztu ere.

Honen ondorioz 2022ko uztailean udala eta auzotarren ordezkari bana Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ordezkariekin batu ziren eta auzotarrek salatutako usain txarren areagotzeagatik egin dela azaltzen dute eta kutxatilen mapa bat egitea eta Patzuergoari igortzeko konpromezua hartzan dute.

Bestalde, Bilboko Ur Partzuergoaren partetik parte hartu zuten ordezkariek estazioaren azterketa eta berrikuspen sakona egiteko konpromisoa hartu zuen, usain txarrak eta zarata minimizatzeko.

2023ko martxoan, auzotarrek, beste idatzi bat bidali zioten Udalari. Idatzi horretan 2022ko irailetik azarora arte ponpaketa estazioak igortzen zuen zarata eta usaina aldatu egin zela azaltzen zuten, usain txarra marea biziak eta egun asko euria egin gabe dagoenean nabarmen nabaritzen zela eta zarata, nahiz eta konstantea ez izan, bolumena askoz ere handiagoa zela.

Beste alde batetik, Altamirako eta Aixapeko bizilagunen kexak ere jaso dituzte, saneamenduak igortzen dituen usain txarrak direla eta. Udalera bidali den idatzian ibaira egiten diren uren isurketari buruz galdeztzen zen eta auzotarrek ur horiek hondakin urak diren jakin nahi zuten.

2023ko urrian auzotarrek beste bilera bat egiten zuten udaleko eta UR Patzuergoko ordezkariekin. Bertan honako gai hauek landu ziren:

1. Ponpaketa-estazioaren **inguru-men-inpaktuaren ebaluazio zehatza** hastea, zarata arazoei eta usain txarrei dagokienez.
2. Arauak betetzea: **Zaratarekin eta usainenkerin zerikusia duten** eta toki- eta estatu-mailan indarrean dauden **araudiak eta erregulazioak** berrikustea, ponpaketa-estazioak baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko.
3. Zarata arintzea: **Zarata murrizteko konponbideak aztertzea**, hala nola soinu-hesiak jartzea eta eragiketa-ordutegiak berrikustea soinu-eragozpenak minimizatzeko.
4. **Usain txarrak kontrolatzeko alternatibak** ikertzea, hala nola iragazteko sistema aurreratuak eta aurrea tratatzeko teknologiak.
5. Komunitatearen arazoei aurre egiteko hartutako neurriei eta beste edozein kezka osagarri jakinarazteko moduari buruzko informazioa emango dion **komunikazio-plana ezartzea**.
6. Etengabeko **jarraipen- eta ebaluazio-sistema** bat ezartzeari.



**Busturiko EH Bildutik
Udalari eskatu diogu
egoeraren jarraipena egin
dezala, Bilbao Bizkaia Ur
Partzuergoak beharrezko
neurri guztiak har
ditzan San kristobaleko
saneamendu estazioak
sortzen dituen usain
arazoak minimizatzeko,
bere garaian, eraiki
aurretik, adostu
zen bezala.**

Bestalde, Busturiko EH Bildutik, uztailean udaletxean egindako osoko bilkuraren, saneamendu estazioak sortzen dituen usain txarrei eta ibaira egindako isurketei buruz galdeztu genuen.

Ibaira egindako isurketei dagokienez, udal-ordezkarien erantzuna izan da saneamendu-estazioaren "arintze" bat direla.

Usain txarrei dagokienez, erantzuna izan da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa egoeraren jarraipena egiten ari dela.



La resaca del bombeo de fecales

En **octubre de 2010**, el ayuntamiento de Busturia, formado por los partidos ANV y EA, **se opuso a la ubicación de la estación de bombeo de aguas residuales**, respondiendo a la preocupación del vecindario. En aquel momento **se mencionó el ruido, los olores y el riesgo de vertidos**, y se abogó como alternativa por la construcción de la planta en los terrenos contiguos al Astillero de Murueta, y no en una zona urbana aledaña a viviendas.

En ese proceso de denuncia hubo una **movilización muy fuerte de la ciudadanía**, además de recibir multas de 500 euros, por interrumpir el tráfico para distribuir información en la vía pública. Todas las inquietudes del vecindario y el gobierno municipal de entonces, se están viendo cumplidas, lamentablemente.

En Murueta, donde antes no era posible construir un planta de bombeo, hoy se incluye sin problemas el enorme proyecto del museo Guggenheim. Está claro qué interés defiende cada partido.

Situación actual

En febrero de 2022, los vecinos de San Cristóbal, a través de un escrito, informan al Ayuntamiento de Busturia y al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia de **los ruidos y malos olores que genera la estación de bombeo en este barrio**. En el escrito se informa del ma-

lestir vecinal y se solicita información sobre las medidas a adoptar.

En mayo de 2022 se realiza una recogida de firmas y se presenta en el ayuntamiento.

En julio de 2022 se reúnen un representante del Ayuntamiento junto con un representante de los vecinos y vecinas con un delegado del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia. En esa reunión los vecinos explican que el mal olor ha aumentado y se comprometen a hacer un mapa de las arquetas y remitirlo al Consorcio. Por su parte, los representantes del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia se comprometieron a realizar un análisis y revisión exhaustiva de la estación, para minimizar los malos olores y el ruido.

En marzo de 2023 el vecindario remite un nuevo escrito al Ayuntamiento. En dicho escrito explican que desde septiembre hasta noviembre de 2022 ha cambiado el ruido y el olor que emite la estación de bombeo, el mal olor se nota considerablemente cuando hay mareas vivas y muchos días sin llover. El ruido, aunque no es constante, es mucho más alto.

Por otro lado, también han recibido quejas de los vecinos y vecinas de Altamira y Axpe por los malos olores que emite el saneamiento.

En el escrito remitido al Ayuntamiento se preguntan por el vertido de aguas al río y los vecinos y vecinas quieren saber si esas aguas son aguas residuales.

En octubre de 2023 los vecinos y vecinas celebran una nueva reunión con representantes municipales y del Consorcio Bilbao Bizkaia. En dicha reunión se tratan los siguientes temas:

1. Iniciar una **evaluación de impacto ambiental** detallada de la estación de bombeo en relación con los problemas de ruido y malos olores.
2. **Revisar las normativas y regulaciones** vigentes a nivel local y estatal **relacionadas con ruidos y olores**, asegurando que la estación de bombeo cumple todos los requisitos.
3. Estudio de **soluciones para la reducción del ruido**, tales como colocación de barreras acústicas y revisión de los horarios de operación para minimizar las molestias sonoras.
4. Investigar **alternativas para el control de malos olores**, como sistemas avanzados de filtración y tecnologías de tratamiento del aire.
5. Establecer un **plan de comunicación** que informe a la comunidad sobre las medidas adoptadas.
6. Establecer un **sistema de seguimiento y evaluación** permanente.

EH Bildu de Busturia, por su parte, en el pleno celebrado en julio en el ayuntamiento, ha preguntado por los malos olores que genera la estación de saneamiento y los vertidos realizados al río.

En cuanto a los vertidos al río la respuesta de los representantes municipales ha sido que son un "alivio" de la propia estación de saneamiento. En cuanto a los malos olores, la respuesta ha sido que el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia está haciendo un seguimiento de la situación.

EH Bildu de Busturia solicita al ayuntamiento que haga un seguimiento de la situación para que el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia adopte todas las medidas necesarias con el fin de minimizar los problemas de malos olores que genera la estación de saneamiento de San Cristóbal, tal y como se acordó en su momento, antes de su construcción.

Udal zergen inguruko hausnarketa

Azken hilabeteetan birritan egunera dira udal zergak herrian.

Lehenengoan, iazko azaroan, **udal gobernuak %3ko igoeraren proposamena ekarri zuen Osoko Bilkurara. Aurretik EH Bildurekin inolako eztabaidarik izan gabe**, zuzenean akordio proposamena plazaratu zuten bilkuran. Eta zeintzuk izan ziren %3ko igoera aurkezteko **argudioak? Bakarra: inguruau dauden antzeko tamainadun herrien igoeren batezbestekoak** hori izan zela.

EH Bilduri ez zaio serioa iruditzen era horretako eragina duen neurri baten analisia “ingurukoek zer egin duten” ikustea bakarrik izatea. Zer gertatuko litzateke inguruko herri guztiak Busturiko Udal gobernuaren jarrera berdina hartuko balute? Denak elkarri begira geratuko lirateke erabakirik hartu ezinik?

Bilkura berean azaldu genien jokabide hori ez dela bidezkoa, ezta serioa ere. Busturiko errealitatea batzuetan inguruko herrikin alderatuta oso desberdina izan daiteke. Zerga mai-laren azterketan parametro asko izan behar dira kontuan, hala nola: **langabezia tasa, KPI/IPCren igoera, herritarren batazbesteko errenta maila, erretiratutakoent kopuruua, batezbesteko adina, diru iturriak...** Hori da gobernatzea, hain zuen ere, norbere beharren eta egoeraren arabera erabakiak hartzea, ez ingurukoek zer egiten duten begiratu eta gauza bera egitea, itsuan.

Gainera, kontuan izanda udalean bi alderditako zinegotziak baino ez gaudela, adierazi genien parte-hartzea sustatu behar dela. Hain zuen, aldez aurretik talde biek **gai hau landu eta amankomuneko proposamen bat mahaira ekartzea** izango litzateke aukerarik egokiena. EAJ-PNVk berea aurkeztu zuenerako ez zegoen astirik, noski, azken uneko proposamena baitzen.



Hala ere, gure erantzukizunari uko egin gabe, %3ko igoera ontzat eman go genuela esan genuen, beti ere, baldintza bat ezarrita: **hurrengo zerga berrikuspenean udal gobernuak EH Bilduko ordezkariekin adostasun batera heltzeko ahalegina egingo zuela**, eta bilkurara eraman baino lehen negoziazio bat egongo zela. EAJ-PNVk baiezkoa eman zion proposamenari, eta hitza eman zuen hurrengoan hala egingo zuela.

Sei hilabete geroago, maiatzeko osoko bilkuran, ikusi genuen EAJ-PNV-ren hitzak zenbat balio duen. OHZ-IBIren eguneraketa eztabaidatu zen bertan. **Berriro ere, negoziaketa-rik gabeko egunera-keta bat ekarri zuten** osoko bilkurara, aurretik gurekin harremanetan jarri gabe. Eta zeren arabera proposatu zuten igoera? Barriro ere inguruko herriek zer egin duten aztertu eta kontuan hartuta. Oraingoan ere, Busturiko errealitatea aztertu gabe. Ostera ere, herriaren ia erdia ordezkatzen duten zinegotziekin ezer negoziatu gabe. Eta euren hitza janda. Sei hilabete lehenago negoziazio bat abiatzeko konpromisoa hartu zuten, eta gero, zuzenean osoko bilkurara euren proposamena eraman zuten.

EH Bilduk bere eskua luzatzen jarraitzen du Busturiko erronkei aurre egiteko eta alderdien arteko adostasunak lortzeko. Espero dugu EAJ-PNVk udal gobernuak etorkizunean jarrera berdina izan dezala, orain artekoak oso bestelakoa erakutsi badigu ere.

REFLEXIÓN SOBRE LOS IMPUESTOS MUNICIPALES

En noviembre del año pasado, **el gobierno municipal, sin aviso previo, presentaron la propuesta de acuerdo de subida del 3% de los impuestos municipales** directamente en la reunión justificando para ello que esta era la media de los incrementos de pueblos de similar tamaño de los alrededores.

La realidad de Busturia a veces puede ser muy diferente. Hay que tener en cuenta la tasa de paro, el incremento del IPC, el nivel de renta medio de la ciudadanía, el número de jubilados y jubiladas, la edad media, las fuentes de ingresos... Teniendo en cuenta que en el municipio sólo hay ediles de dos partidos, les dijimos que la mejor opción sería que ambos grupos trabajaran en este tema de antemano y llevaran a la mesa **una propuesta común**.

Sin renunciar a nuestra responsabilidad, dijimos que aprobaríamos un aumento del 3%, siempre y cuando se estableciera una **condición: que en la próxima revisión fiscal, el gobierno municipal intentaría llegar a un acuerdo con la representación del EH Bildu**.

Seis meses después, en el pleno de mayo, comprobamos lo **poco que vale la palabra de EAJ-PNV** al discutir la actualización del IBI. Una vez más, trajeron una actualización al pleno sin contactarnos antes y **de nuevo**, sin analizar la realidad de Busturia y **sin negociar nada** con el otro grupo que representa a casi la mitad del pueblo.

Udal gobernuak Palestinari planto!

Auzholan Elkarteak bultzatutako dinamika bat erantzunez, Palestinan deon begien aurrean sionistak egiten ari diren genozidioa salatzeko, Busturiko elkartea gehienek babestu zuten mozioa heldu zen udal batzara. Elkartea denez, eta ez alderdia, ezin du zuzenean moziorik aurkeztu beraz, guri egokitu zitzai-gun hori aurkeztea, gu ere guztiz ados gaudelako hor planteatzen zenarekin.



EAJ-PNVk bere aldetik beste mozio bat aurkeztu zuen, Eusko Legebiltzarrean onartutakoa, eta horren alde egiteaz gain **Auzholanen proposamenaren aurka bozkatu zuen**, beharrik gabe. Honen aurrean galdetu genien ea zer punturekin ez zeuden ados, baina ez genuen ezer lortu. Haien jarrera kritikatu genuen, umeak gosez hiltzen ari direla eta ezin dela beste aldera begiratu, Busturiko gizartea babestutako mozioa zela, eta Eusko Legebiltzarreko testua ez dela egokia Busturirako.

Auzholan Elkarteak bultzatutako sionisten genozidioa salatzeko mozioa heldu zen udal batzara.

EAJ-PNVk ukatu zuen konpromisoa minimo bat hartza Palestinia sufritzen ari den genozidioa salatzeko

Ez genuen lortu EAJ-PNVren gobernuak konpromisoa minimo bat hartza Palestinia sufritzen ari den genozidioa salatzeko.

- **Ez da Palestinaren bandera udal txearren balkoiak ipiniko**
- **Ez da Gernika Palestina elkartasuna plataforma bidez diruz lagunduko**
- **Ez da sionisten genozidioaren aurka boikot egingo.**

Honen justifikazioa da ez dela aipatzen Hamasen urriko erasoa, baina horrek ez du esan nahi horren alde dagoenik, beste biolentzia mota asko daude, Zisjordanian, Jerusalemen,... eta ez da horregatik ados egoten horiekin.

Gure ustez, hau aitzakia hutsa da, eta Busturian gaur egun **dagoen gobernuaren noraezearen beste adibide bat**, herriko elkarteen, Busturiko gizartearen sentimendutik gero eta urrunago, gero eta harroago.

¡El gobierno municipal planta a Palestina!

Respondiendo a **una dinámica impulsada por la Asociación Auzholan**, la moción apoyada por la mayoría de las Asociaciones Busturia llegó al Pleno Municipal, con la intención denunciar el genocidio que están llevando a cabo el sionismo en Palestina ante los ojos del mundo.

Al ser una asociación, y no un partido, no puede presentar una moción directamente, por eso nos tocó presentarla, ya que también estamos completamente de acuerdo con lo que allí se planteó.

EAJ-PNV presentó otra moción, que fue aprobada en el Parlamento Vasco, **y además votó en contra de la propuesta de Auzholan**, sin necesidad.

Les preguntamos con qué puntos no estaban de acuerdo, pero no obtuvimos nada.

Criticamos su actitud, la muerte de niños y niñas de hambre y sed, y que es imposible mirar hacia otro lado,



que era una moción apoyada por la sociedad de Busturia, y que el texto que presentaban, el aprobado en la cámara vasca no es el adecuado para Busturia.

No conseguimos que el gobierno de EAJ_PNV asumiera un compromiso mínimo para denunciar el genocidio que está sufriendo Palestina.

La **bandera palestina no se colocará en el balcón del ayuntamiento; no se aportará ayuda económica mediante la plataforma Gernika Palestina Elkartasuna; y tampoco habrá boicot contra el genocidio sionista.**

La justificación de todo esto es que en la moción de Auzholan no se menciona el ataque efectuado por Hamás en octubre. Pero desde luego, eso no quiere decir que se esté a favor; hay muchos otros tipos de violencia, en Cisjordania, en Jerusalén, ... y no se mencionan, sin que eso suponga que se esté de acuerdo con ellos.

En nuestra opinión, esto es solo una excusa, y **una muestra más de la deriva del actual gobierno de Busturia**, cada vez más alejado del sentimiento de las asociaciones del pueblo, de la sociedad de Busturia, cada vez más alto.


Gure seinak

Herriko Eskola galtzen duen herri txikia bizitza ere galtzen du hein batean, kolorea, irria... Urrun daude Busturin auzo bakoitzean eskola bete haur zeuden garaiak. Altamiran batzen dira orain Busturiko haur guztiak, baita Murrueta eta Sukarrietakoak diren batzuk ere. Arratsaldero irri eta oihuz betetzen dute plaza, plaza bizia.

Badira urteak Altamirako Seintxu haur eskola txiki geratu zena, eta azken urteetan modulo osagarri bat jarri bada ere, haurren beharrak ez daude guztiz asetuta eta langileentzat ere ez dira baldintza egokienak lanera-ko. Arazoari “partxe” bat jartzea da, eta ez benetako irtenbide bat eskaintzea.

Haurreskolak dohakoak eta beharrezkoak diren garai honetan, herri apostu ausartak behar ditugu. Baliteke berriz ere haur kopurua gutxitzea, baina eskaintza agortu batek, gurasoak uxatu baino ez ditu egingo eta alboko herriean topatuko dute lekua, edo bizilekuia.

Uste dugu garaia dela benetan garrantzi- tsua denari lekua egiteko. Eta zaintzak erdigunean jartzeaz ari garen honetan, zain ditzagun gure seinak, zain dezagun




La escuela infantil Seintxu de Altamira se ha quedado pequeña. Las necesidades infantiles no están totalmente cubiertas y las condiciones laborales tampoco son las mejores. Necesitamos una nueva guardería y hay espacio: el caserío Agarre. Existen ayudas económicas para impulsar nuevos proyectos de Educación Infantil.
¡Asumamos la responsabilidad que nos corresponde!

haurtzaroa eta zain dezagun gure herriaren etorkizuna eta bizitasuna.

Haurreskola berri bat behar dugu herrian, eta lekua badago: Agarre baseria. Eusko Jaurlaritza diru laguntzak eskaintzen ari da Haurreskola berrien proiektuak bultzatzeko. Har dezagun bada dagokigun ardura. Agarren lekua egin genezaiok guzti horri, baita esko latik eskatzen ari diren espazio berriei, zein herritarrei galdetuta atera daitezkeen bestelako proposamenei ere.

Lekua badago, gogoa falta da, indarra falta da, ausardia falta da.

Porlanezko proiektu gris eta ilunen gainetik, sor ditzagun proiektu txiki eta koloretsuak



16 urtetakoek gimnasioa erabili ahal izango dute

Adin txikiko gazteek gimnasioa erabil- tzeko beharraren haritik, EHBildutik eskatu dugu argitzeko ze baldintzak bete beharko ziren adin horretako gazteek gimnasio erabiltzeko aukera izateko, gehienbat aseguruari dagokionez, ze, Gernikan eta beste herri batuetan posi- blea da, monitoreen laguntza dagoelako.

Argitze prozesu horren ondorioz honakoak dira baldintzak:

- Arriskua haien gain geratuko litzateke.
- Haien tutoreen baimen idatzia beharko da.
- 18 urte edo gehiago dituen gimnasio kide batekin joan beharko da.

Las personas de 16 años podrán utilizar el gimnasio

En vista de la petición de uso del gimnasio por menores de edad hemos requerido al Ayuntamiento que aclare qué condiciones habría que cumplir para que jóvenes de esa edad pudieran utilizar el gimnasio, sobre todo en materia de seguros, ya que esto es posible en Gernika y en otras localidades, al tener apoyo del monitorado.

Como resultado de este proceso de clarificación, las condiciones son:

- El riesgo sería de las personas usuarias.
- Se requerirá permiso por escrito de sus tutores o tutoras.
- Deben estar en compañía de una persona socia del gimnasio mayor de 18 años.

Osakidetzako zerbitzuen krisi etengabea

Lehen arretaren larrialdia areagotu baino ez da egiten, azken datuen arabera Gernikaldean uztailaren 18tik abuztuaren 5erarte, **zortzi mediku-tik hiru egotera pasa dira**.

Honi gehitu behar deutsagu Busturian galduztako pediatra zerbitzua erraztearen ospitalean arreta ematea eskatu zela, egun Gernikako anbulategian egiten den moduan beharrean, leku horrek dakanren zaitasunengatik, aparkatzeko adibidez, eta onartuta egon arren oraindik orain ez da inolako aldaketarik egin.

Gure ustez Pediatría zerbitzua lehen zegoen moduan herriz herri bermatu behar da. Lehen ahal bazen gaur be beharko zen, zerbitzuen murrizketa onartezina da eta.

Egoera honen ondorioz ospitalearen larrialdi zerbitzuak kolapsatzen dira, eta horren salaketa da sindikatuek erindako kontzentrazio eta eskariak.



Gernikako Ospitaleko Larrialdiak urteak daramatzate erizain eta languntzaile falta salatzen. Gaur egun, oso talde txikia ari da lanean txanda bakoitzean, eta, beraz, larrialdi bat erantzun behar zaionean, zerbitzuak hutsik geratzen da, arriskuan jartzen ospitalerutako pertsonak. Gainera, une honetan Lehen Mailako Arretak duen saturazioaren ondorioz, larrialdiak gain saturatuta daude, Lehen Mailako Arretak artatu ezin duena bere gain hartzen dutelako.

La continua crisis de los servicios de Osakidetza

La emergencia de atención primaria aumenta sin parar. Según los últimos datos, en Gernikalde del 18 de julio al 5 de agosto **el número de personal médico ha bajado de ocho a tres**.

Así mismo, para facilitar el servicio de pediatría que tras su desaparición de Busturia se da en el ambulatorio de Gernika, se solicitó prestar atención en el hospital, debido a las dificultades que presenta el ambulatorio, por ejemplo de aparcamiento. Aunque se ha aceptado, no se ha materializado.

En nuestra opinión el servicio de Pediatría debería estar garantizado de pueblo en pueblo como antes, si antes se podía, debería serlo hoy, porque la reducción de servicios es inaceptable.

A raíz de esta situación, los servicios de emergencia del hospital colapsan, razón de la concentración de denuncia y las exigencias de los sindicatos.

Kanpoko desfibriladore automatikoak (KDA)

Azken hilabeteetan EH Bilduk egindako proposamenen ostean, desfibriladoreak jarriko dira udalerriko hainbat lekutan, besteak beste, kirola egiten den lekuaren Axpeko Aingerubide kultur etxearen, San Kristobaleko adinekoen elkartearren zentroan, konsultatu ostean, eta Altamirako eskolan.

KDAak gailu elektroniko eramangarriak dira, eta pertsona batek bihotz-gelditzea duenean bihotz erritmoa berrezartzeko balio dezakete. Desfibrilazio goiztiarrak, desfibrilazioa gertatu eta lehenengo 3 eta 5 minutuen artean, osasun-erantzunik egokiena dakar. Gainera, KDAak erabilzeko egungo erraztasunari esker, pertsonal ez-sanitarioak berehala esku hartu ahal izango du, larrialdi-zerbitzua iritsi aurretik (112) erabilzearren bidez kalteak eragiteko arrisku txikia baitago. Horregatik, bere **erabilera eta kokapen egokiak bizitza asko salba ditzake**.



Desfibriladores Externos Automáticos (DEA)

Tras las propuestas de los últimos meses de EH Bildu, al fin se instalarán desfibriladores en distintas ubicaciones del municipio, entre otras, donde se realiza práctica deportiva Aingerubide kultur etxea, así como en el centro de la Asociación de personas mayores de San Kristobal, en periodo de consulta, y en la escuela, en Altamira.

Los DEA son dispositivos electrónicos portátiles que diagnostican y pueden ayudar a restablecer el ritmo cardíaco cuando una persona sufre un paro cardíaco. La desfibrilación temprana dentro de los 3 a 5 primeros minutos de producirse el hecho supone la respuesta sanitaria más adecuada. Por ello, **su uso y ubicación adecuados pueden salvar muchas vidas**.

ESKATZEN DUGU:

Plantilla handitza Profesional kopurua Galdakaoko Ospitaleko larrialdiak plantillakoarekin parekatzea

- PLANTILLA HANDITZEKO ARRAZOIAK: Plantilla handituz, itxaronaldiak arinduko dira.
- Larrialdiak ez lirateke inoiz arretarik gabe geratuko, eta hori ezinbestekoa da arriskurik gabeko kalitatezko arreta eskaintzeko
- Lana % 25 igo da, ondorioz, langileek gehiegizko lana dute

BUSTURIKO SEMAFOROA**Jokaera onartezinak**

Hauxe da gure herriko ingurune natural eta ikusgarrian orain dela aste batzuk ikusitakoa. Garbigunea eta tamaina handiko trasteak batzeko udal zerbitzua daudelarik, Goierri auzoan erroberak horrela botatzea jokaera onartezina da.

**Busturia Zabaltzen APPa**

Busturia Zabaltzen APPa azkenean urteetan EH Bilduk eskatutako zerbitzua emateko aukera zabaldu da. Udalak ez ezik Aldundiak eskeinitako tresna da hau, orain falta da praktiko bihurtzea, edukiz betetzen, eta ez udal web zerbitzuaren adar bat bezala, ezerezean geratzeko.

**Abisua emateko seinaleak**

Ez da lehen aldia tamaina handiko garraioak susto hartzen duela pasabide honetan, horrexitik Altamirako estura arriskutsu honen abisua ematen duten seinaleak ipintzeko proposatu genuen, Busturi gero eta seguruagoa bat egiteko urratsa.

**EUOPAR HAUTESKUNDEEN
EMAITZAK BUSTURIAN****Gure herrian be,
aldaketa dator!**

Azken urteotako bidean, Europako hauteskundeetan be, EH Bilduren proiektuarekiko busturitarren atxekimendu sendotzen ari da. Eskerrik asko konfiantzagatik eta zorionak!

